

B

BARREN

TOKIKOM



30 urte musika eskolari emanda

Mari Jose Zubiaurre



UZTAILAK 05 LARUNBATA
OPEN AIR - ORDUA 15:00H

ALBITZURI INDUSTRIALDEA - ELGOIBAR - GIPUZKOA - 1000 APARKALEKU BAINO GEHIAGO EDFrako

INIGO DIAZ KRIPTONITA - PATT - DIEGO GONZALEZ
CARLOS PEREZ - DARIO NUÑEZ - DAVID MEDINA - VOZ
IBAILO - JAVICO - CINTHYA NES-K - CARLOS REVUELTA
K-STYLE - JUANAN - B GUTIERREZ
DAVID MK - KHRIS RIOS

*** SPECIAL SUN ART SHOW ***


*** EGUZKIPEAN EZER EZ DA BERDIN ***

SHOW LED - MAPPING - MEGACONFETIAK

AURRE SALMENTA + KAMISETA: 18€ - LEIHATILAN SARRERAK + KAMISETA 18€

AURRE SALMENTA: ELGOIBAR: HOTEL TXARRIDUNA (MAALA PARKEA) EIBAR: OISHI (UNTZAGA PLAZA)

ERMUA: SAGARRA GASTRO PUB (PROBALEKU 4 BAJO) - RRPF EDF



Elgoibar Arreturre BHI 2014-2015 ikasturtea



Elgoibar Arreturre BHI
Arreturre 2
Tel: 943 748 397
E-posta: 013401aa@hezkuntza.net
www.elgoibar/bhi.net

MATRIKULA ZABALIK
DBHn eta Baxilergoan

Ekainaren 23tik
uztailaren 4ra





Amaia Larrañaga

J.Luis, garai honetan mendi aldera osteratxo bat egitea besterik ez dago zozoak zelako pozik dabilzan konturatzeko, kantu batean, eta geu ere, papereko zozook, antzera gabiltza ikasturtea ia-ia bukatu delako, eta zer esanik ez gure ikasleak, izan ere,



Jose Luis Azpillaga

bederatzi hilabete luzeak dira.

Euskaltegian oporrak hartu aurretik, hor dihardugu irakasleok aholkuak ematen, urtean zehar ikasitakoa udan gal ez dezaten. Bateko, apunteki txukuntzea, ordenatzea..., besteko, irakurtzea, baita irrati, telebista... entzutea ere, eta, garrantzitsuena, hitz egitea. Egia esan, aholku hauek urtean zehar ere hamaika aldiz gogorarazten dizkiegu, nik, sari, esaten diedan bezala, eurek nire *errosariotzat* hartu arren.

“Oporrak gustuko kontuatarako dira, eta dena delakoa euskaraz egitea da bilatu behar duguna”

Badakigu oporrak gustuko kontuatarako direla, eta gustuko horien barruan dena delakoa euskaraz egitea da bilatu behar duguna, euskaraz egite horrek, niri behintzat, gozamina ematen didalako, eta, gehienetan, geure esku dago.

Sentsazio hau hemendik ere transmititu nahi dizuegu euskaltegi-tako ikasleoi: ondo pasa itzazue udako oporrak eta gozatu, baina ez ahaztu euskaraz ere gozatu ahal dela, zuei, gainera, are gozamen handiagoa emango dizue, egiten duzuen ahalegina kontuan izanda.

Baina, J.Luis, ez ditut ahaztu nahi udan barnetegiren batera joaten direnak, ez dira-eta gutxi izaten, euren opor egunak horretan ematen dituztenak. Hemen ere, AEKn behintzat, ikastea eta gozatzea lotuta daude, eta ohiko eskolez gain, hainbat aukera izaten dira, besteak beste: barnetegi ibiltariak, bai bizikletaz bai oinez; familia barnetegiak, hau da, familia osoak elkarrekin egiten duena... Zeuek ere gozatu merezi duzue-eta!

J.Luis, zeuri ere hala opa dizut, eta zuei, irakurleoi ere bai.

Eskerrik asko, Amaia. Arrazoi duzu: ikasturtea luzea egiten da azkenerako, eta denok ere desiatzen gaude udako opor-egunak gozatzeko. Zozoak ezezik beleak ere pozarren dabilza mendian, eta neu ere halaxe ibiltzeko asmotan naiz, egun batzuetan behintzat, inguruko mendietan eta Pirinio aldean, harkaitz puntetan eta amildegi ertzetan, hegan ibiltzen diren arrano, putre eta belatxingei begira gozatuz. Gainerakoan, gordeta ditut, jakina, urtean zehar heltzeko astirik ez eta udan esku artean izan nahi ditudan hainbat liburu eta disko ere. Izango dut, ziur, zertaz gozatua udan.

Urtean zehar ere izaten da astia, batzuetan, gustuko irakurketa eta abarretarako. Euskaltegian ere saiatzen naiz –zuk ere egingo duzun moduan– ikasleei testu interesgarriak eta jarduera motibagarriak aurkezten. Hala ere, azken urteotan titulitisa eta azterketitisa jota gaudelakoan nago, eta horrek gure praktika gehiegi baldintzatzen duela uste dut. Alegia, askotan –akaso gehiegitan– azterketen inguruko ariketek eta dinamikak euskaraz gozatzeko aukerak murrizten dizkigula iruditzen zait.

Urtean zehar ere izaten da astia, batzuetan, gustuko irakurketa eta abarretarako. Euskaltegian ere saiatzen naiz –zuk ere egingo duzun moduan– ikasleei testu interesgarriak eta jarduera motibagarriak aurkezten. Hala ere, azken urteotan titulitisa eta azterketitisa jota gaudelakoan nago, eta horrek gure praktika gehiegi baldintzatzen duela uste dut. Alegia, askotan –akaso gehiegitan– azterketen inguruko ariketek eta dinamikak euskaraz gozatzeko aukerak murrizten dizkigula iruditzen zait.

“Urtean zehar ikasi eta ikasi jardun duzuenok: bada garaia hegoak zabaldu eta hegan abiatzeko”

Udan, ordea, libreago ibiltzen gara, nolabait, gustuko gauzak egiteko, azterketek eta horrelakoek enbarazurik egin gabe. Zorionez, gaur egun, badago zer aukeratua euskaraz ere gozatu ahal izateko: filmak, liburuak, antzezlanak, jaialdiak eta era guztietako ekitaldiak izango ditugu eskueran. Eta, garrantzitsuena: gero eta euskaldun gehiago inguruan euskaraz egiteko.

Gainera, ez da ahaztu behar urtean zehar egindako lanak gehiago eta hobeto gozatzeko balioko digula. Beraz, urtean zehar ikasi eta ikasi jardun duzuen –eta dugun– ikasle eta irakasleok: bada garaia hegoak zabaldu eta hegan abiatzeko! Animo, eta opor on guztioi!

Badatos San Bartolomeak III
Publizitatea jartzeko
943 743 704

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalaoa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikei Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Mila esker

Debemen elkarteak eskerrak ematea nahi dizkie Trinitateetako azoka antolatzen lagundu zuten guztiei. Batez ere hilabeteetan zehar antolakuntza bileretara etorri izan diren auzoetako alkateei, eta, nola ez, Armueta harategiko Angeli ere. Baita ere egunean bertan dastaketa eta bazkari orduan laguntzera etorri ziren landa inguruneko auzoetako boluntario guztiei. Sagardoa banatzen egon ziren gazteak ere ez ditugu ahaztu nahi.

Debemen ☺

Eskerrik asko

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu Trinitate jaiak antolatzen lagundu diguzuen guztioi. Eguraldiak ere lagundu digu aurten, eta oso ondo pasatu dugu denok elkarrekin. Mila esker, beraz, aurtengoak jai biritilak izan zitezen zeuen onena jarri duzuen guztioi. Mila esker, Trinitateko Jai Batzordearen izenean. Agur, eta hurrengo urtera arte, Jaunak nahi badu.

Mendaroko Trinitate Jai Batzordekoak ☺

Elgoibarko Sagardorik onena Lizundian aurten

Aginte makila aurtengoan Lizundia base-rira joango da. Izan ere, hango sagardoa izan zen bozkatuena larunbatean. Pena da berriki utzi gaituen Luisi aginte makila eskura ezin ematea, baina izan dadila urte beteko "agintaldi" hau bere lagun eta sendiarentzako oroi-garri. Eskerrak ere eman nahi genizkieke, nola ez, aurten ere parte hartu duten sagardogile guztiei, eta sagardoa dastatzera etorri zinteten denoi.

Malako Jai Batzordea ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferenziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Maiatzean...

JAIOAKOAK



Oier Gomez Martinez
Maiatzak 17
Agustin eta Miriam



June Laka Morais
Maiatzak 5
Unai eta Tania



Martin Cebrian Saez
Maiatzak 1
Sergio eta Ainhize




Peru Arakistain Peñalba
Maiatzak 12
Unai eta Teresa



Eneko Martinez Astigarraga
Maiatzak 12
Igor eta Olatz



Jare Ulibarri Tellexea
Maiatzak 28
Ion eta Eider



Laida Iparragirre Egafia
Maiatzak 11
Josu eta Nerea



Jule Igartua Gil
Maiatzak 19
Joseba eta Nerea



Malake Boutaher
Maiatzak 2
Noureddine eta Amal

Danel Parada Sanchez
Maiatzak 2
Vicente eta Arantzazu-

Nora Larrañaga Agirre-gomezkorta
Maiatzak 7
Ivan eta Idoia

Ane Castro Aldazabal
Maiatzak 7
Kaiet eta Maria

Aimar Uribe Mendoza
Maiatzak 13
Jose Luis eta Katherine

Enaitz Arriola Bastida
Maiatzak 12
Patxi eta Alaitz

Zeena Fatima Masood
Maiatzak 12
Faisal eta Sobia

Manal Johri
Maiatzak 21
Rachid eta Touria

Naila Carvalho Teixeira
Maiatzak 28
Jose eta Cristina

HILDAKOAK

Antonio Frango Dosantos • 86 urte • Maiatzak 1
Juan Gonzalez Gomez • 82 urte • Maiatzak 6
Maria Angeles Ferrero Turiel • 53 urte • Maiatzak 11
Jose Inazio Ulazia Etxeberria • 83 urte • Maiatzak 11
Victor Torres Peon • 88 urte • Maiatzak 11
Josefa Carrasco Laguna • 89 urte • Maiatzak 12
Lolita Mondragon Sanchez • Maiatzak 17
Pedro Romero Matamoros • 84 urte • Maiatzak 18
Jesus Duran Dominguez • 68 urte • Maiatzak 19
Domingo Miquel Zoco • 94 urte • Maiatzak 22
Angela Zabaleta Aizpitarte • 72 urte • Maiatzak 25

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 / (Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira
943 744 112 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

Euskara sustatzeko hitzarmena berretsi dute Elgoibarko Udalak eta IMHK

3.000 euro jasoko ditu IMHK, eskolan euskara sustatzeko



Elgoibarko Udalak eta IMHK ikastetxean euskara sustatzeko lankidetzaren hitzarmena berretsi dute, eta hitzarmen horri esker, 3.000 euro jasoko ditu IMHK Goazen proiektua finantzatzeko laguntzeko. IMHn eta, oro har, makina-erremintaren sektorean euskara sustatzea da proiektuaren helburua, eta hamar urteko ibilbidearen ostean, IMHko prestakuntza eta zerbitzu guztietan euskararen presentzia bermatuta dagoela azaldu zuten arduradunek. Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak, Ane Beitia Euskara Batzorde buruak, Jozean Egaña IMHko zuzendariak eta Edurne Bilbao IMHko hizkuntza koordinatzaileak hartu zuten parte sinadura ekitaldian. IMHko arduradunek eskerrak eman zizkieten erakundeei, Goazen planak hasieratik izan duelako Jauriaritzaren, Aldundiaren eta Udalaren babesa.

Erabilera gora

Lan hizkuntzari dagokionean %60ra igo da euskararen erabilera, eta euskaldunen artean hamarretik zazpik euskaraz egiten dute. Euskarazko zerbitzu orduak ere %40ra igo dira aurten, Asmaolaren eraginez, baina oraindik ere enpresei eskaintzen dieten euskarazko prestakuntza teknikoaren eskaera txikia dela azaldu zuten.

Hondakinen mahaia eratzeko eskatu dio EHBilduk Udalarari

EHBilduk emandako datuen arabera, gaikako hondakinen bilketa kopuruak behera egin du Elgoibarren urteko lehen lauhilekoan, eta Elgoibarrek "jasangarritasunaren trena galdu ez dezan", hondakinen mahaia eratzeko eskatu dio Udalarari. Mankomunitateak plazaratu dituen datuetan oinarrituta, urtarrietik apirilera bitartean gaikako bilketa %10ean jaitsi dela adierazi du Elgoibarko EHBilduk, eta une honetan %35,29 birziklatzen dela Elgoibarren. Era berean, 2013ko emaitzei begiratuta, Debarreneneko emaitzak Gipuzkoako "eskasena" izan zirela gaineratu du koalizioak: %29,3. Bilduko hitzetan, Gipuzkoa kultur aldaketa bat egiten ari da hondakinak baliogabetzat jotzetik baliabide gisa ikustera, eta Elgoibarrek aldaketa horren partaide aktiboa izan behar duela uste dute. Hori dela-eta, emaitzen jarraipena egiteko eta neurri zuzentzaileak adosteko Hondakinen Lan Taldea eratzeko proposatu diote EAJ eta PSE-EEk osatutako Udal Gobernuari.

Sebas Etxaniz presoak Euskal Herrira gerturatzeko eskaera egin du, eta bere alde egingo dute hileko azken barixakuko elkarretaratzea



Euskal Preso Politikoen kolektiboa presoak Euskal Herriratzeko eskaerak bideratzen hasi zen martxoan, eta Sebas Etxaniz elgoibartarra izan da eskaera

hori egin duenetako bat. Eskakizunak preso guztiek egitea da asmoa, baina beharren arabera, multzoka egingo dituzte eskaerak. Lehen multzoan preso

gaixoak eta 70 urtetik gorakoak daude, eta hor sartzen da hain zuzen, Sebas Etxaniz. Une honetan Asturiasen dago preso, eta Arabako Zaballa espetxera eramateko eskaera egin du, Espainian preso dauden gainerako presoek bezalaxe.

Elgoibarko hainbat herritarrek babesa eskaini diote presoek kolektiboak hasitako ekimenari, eta mobilizazioarako deia egin dute. Ekaineko azken ostiraleko elkarretaratzea Sebas Etxanizen alde egingo dute Elgoibarren, eta herritarrei eskatu diete parte hartzeko.

Gabi eta Sigma jatetxeak saritu dituzte Elgoibarko Pintxo Lehiaketan

Pintxo Onenaren Saria eskuratu du Gabik, eta Herritarren Saria Sigma jatetxeak

Gabi jatetxeak jaso du Pintxo Onenaren Saria eta Sigma jatetxeak Herritarren Saria. Eguaztenean egin zuten sari banaketa ekitaldia udaletzeko pleno aretoan, eta hantxe ziren sarituak ere. Elgoibarko Udalak seigarren urtez antolatu du aurten pintxo lehiaketa, ostalaritza sektorea sustatzeko eta aldi berean sektore horretan euskararen erabilera bultzatzeko, eta emaitzak eskuan hartuta, balorazio positiboa egin du Udalak. Lehiaketak iraun duen denboran, taberna bakoitzak batez beste 362 pintxo saldu ditu, eta 11.581 boto-txartel eman dituzte herritarrek. Botoa eman duten herritarren artean Belaustegi jatetxean bi lagunentzako dastatze menua zozketatu dute, eta Ainhoa Lendinez egokitu zaio saria. Bestalde, Gorbea jatetxeak eskuratu du Baserrikoa saria. Pintxoak Elgoibarko baserrietako produktuez osatzea zen sari hori eskuratzeko bete beharreko baldintza, eta bi tabernak parte hartu dute: Salentok eta Gorbeak.

Laugarren saria Gabi tabernarentzat

Pintxo lehiaketa egiten hasi zirenetik birritan jaso du Gabik Pintxo Onenaren Saria, eta beste birritan Herritarren Saria. Eneritz Burunza



da Gabiko ugabazaba eta sukaldaria eta berak esan du Kurruskaria izeneko pintxoak egiteko 62 kilo ganba erabili dituztela. Horiek lortzeko arraindegi bat baino gehiagotatik pasatu behar izan dutela aitortu du. Izan ere, 1.700 pintxo prestatu zituzten lau egunetan. Burunzak ganba guztiak zuritzeko lanaren meritua aitortu nahi izan dio Celia sukaldari laguntzaileari.

Bildutako informazio guztia sarean jarri dute ElgoiBerdin tailerrekoek

Jolasa eta generoa aztertu dituzte ElgoiBerdin tailerrekoek Elgoibarren, eta bide batez, beste herrialde batzuetako esperientziak ezagutzeko aukera ere izan dute tailerrean parte hartu dutenek. Orain, bildutako informazio guztia blogera igoko dute: <http://elgoiberdin.wordpress.com>. Bideoak, azalpenak, elkarrizketak eta euren seme-alaben jolaserako ohituren gaineko argazkiak ere jaso dituzte. Kalamua Guraso Elkartetik eta Elgoibarko Udaleko Berdintasun Saitetik jakinarazi dute opor ostean helduko diotela berriro gaiari, ikerketan ikusi dutenaren ondorioak elkarrekin aztertzeko.

Herri Eskolan ezagutzera eman dituzte egin dituzten handitze lanak



Espazio faltaren arazoari irtenbidea emateko asmoz, ikastetxea handitzeko lanak hasi zituzten Elgoibarko Herri Eskolan 2013ko

urtarrilean. Obra ia denak amaitu dituztela eta, berritze lanak ezagutzera eman dituzte ikastetxeko eta Udaleko arduradunek: bede-

ratzi ikasgela berri, gimnasioa eta jolasparke bat, besteak beste. Era berean, ikastetxeko sarrera berri eta patioa handitzeko lanak uztailean hasiko dituztela aurreratu du Hiri-gintza zinegotzi Ricardo Garatek. Elgoibarko Herri Eskolak espazio falta arazoa zeukan azken urteetan, eta bost ikasturte egin zituzten umeek patioan egokitutako ikasgela prefabrikatuetan. Obra honi esker, Herri Eskolaren espazio arazoa konponduko dute. Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Sailak finantzatu ditu obrak, eta 1,8 milioi euro inguruko aurrekontua izan dute.

Elgoibarko gizarteratze mahaia aurkeztu dute

Bazterketa sozialaren errealitateari buruzko diagnostika egingo dute

Bazterketa sozialaren eta gizarteratzearen esparruan aritzen diren hainbat erakunde publikok Gizarteratze Mahaia osatu dute, eta eguaztenean aurkeztu zuten taldea. Bazterketa sozialaren inguruko topalekua izango da, eta gogoeta eta lanerako gunea izateko bokazioz jaio da; partaidetzarako eta lanerako gunea izan, eta gizarteratzearen esparruan lan egiten duten eragileen elkarlana sustatzeko. Mahaia 2013. urte amaieran hasi zen lanean, Elgoibarko Udaleko Pertsonen Batzordea aho batez sortzea onartu eta gero. Lehenengo hilabeteotan, Mahaiaren lana honakoa izan da: mahaia bera osatzen duten eragileak elkar ezagutzea, eta euren jarduna elkarri ezagutaraztea; bazterketa soziala eta gizarteratzea gaiei buruzko trebakuntza ematea, eta, azkenik, Elgoibarko bazterketa sozialaren errealitateari buruzko diagnostiko partekatua egiten hastea. Egun, erakunde hauek osatzen dute mahaia, baina ateak zabalik daude: Ongizate Saila, Enplegu eta berdintasun Saila, Lanbide, Prekaritatearen aurkako Taldea, Stop Kaleratzeak,



Caritas, Gurutze Gorria, Nagusilan, Gazte Asanblada, Kalamua Guraso Elkartea eta Zabaltzen-Sartu elkartea.

IMH sariak banatu zituzten atzo

Atzo banatu zituzten aurtengo IMH sariak. Iñaki Sanchez Hernandez eibartarrari eman zioten ikasle ohi aipagarrienaren saria. IMHn egin zituen ikasketak, eta gaur egun Dikar enpresako kalitate zuzendaria da. IMHko irudi oroigarria eman zioten. Bestalde, Denis Fernandez Bello ermuarra aurtengo ikasle aipagarriena izan da, eta 500 euroko ikasketa poltsa jaso zuen. Erdi-mailako Mekanizazioko ikaslea da, eta lan-praktikak egin dituen Mecanicas Mecal enpresan bertan jarraitzen du lanean. Eredu dualari dagokionean, Aitzol Gonzalez Salegi elgoibartarra nabarmendu zuten. Goi mailako fabrikazio mekanikoa ikasi du, eta eredu dualari esker Tornilleria Aras enpresan egin ditu praktikak. Une honetan, bertan jarraitzen du lanean. Azkenik, Elgoibarko ikasle aipagarrienaren alorrean Carlos Eduardo Llanos Pintori eman zioten saria, eta horri esker enplegurako prestakuntza doan egiteko aukera izango du.


Haizeako kideak, asteburu pasa



Haizean antolatuta, Madril eta Toledo aldera joan ziren asteburu pasa Elgoibarko hainbat emakume. Turismo apur bat eginda, primeran pasatu zuten.

Udako ikastaroak, Udal euskaltegian

DEBABE Udal Euskaltegiak jakinarazi du udako ikastaroan izena emateko epea irekita dagoela ekainaren 24ra arte. Interesa duzuenok pasatu Udal Euskaltegitik (Kalebarren plaza, 2) edo deitu 943 742731 telefonora.



trinitateak


Trinitateak, sanjoanen atariko jaiak

Uda usainean joan dira aurten Trinitate jaiak. Eguraldiak lagundu du, eta erruz ibili da jendea kalean, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Elgoibarren, helduen eta haurren danborradek eta dantza jaialdiak erakarri zuen jendetza handiena, eta, ohi legez, domeka eta astelehena izan ziren Mendaron egunik jendetsuenak. BARRENEK ondorengo hiru orrialdeetan jaso ditu asteburuko irudiak. **Argazki gehiago eta bideoa ikusteko:** www.elgoiBARREN.net.





trinitateak



KIMETZ BERGARETXE

IGERILARIA

Zaila da bi kiroletan nabarmentzea, baina Kimetz Bergaretzek (Mendaro, 2001) eskubaloiarako eta igeriketarako dohainak dituela erakutsi du. Euskadiko txapelketan bigarren egin berri du igeriketan 100 eta 200 metroko bizkar estiloan, eta eskubaloian ere fin dihardu, Sanlo infantil taldearekin.

Ainara Argoitia



Xeber Uribe entrenatzailea eta Kimetz Bergaretxe igerilari gaztea Elgoibarko igerilekuan.

“Gozatzen hasi aurretik lagatzen du jendeak igeriketa”

Noiz hasi zinen igeriketan?

Ume-ume nintzela udako ikastaro horietako batean apuntatu ninduten gurasoek eta gustatu egin zitzaidanez, jarraitzea erabaki nuen. 6 bat urte izango nituen Elgoibarko taldearekin hasi nintzenean. Mendarotik bi lagun etortzen ginen: Gorka Bolunburu Etxabekoa eta ni neu. Kuriosoa da, baina Elgoibarren biok bakarrik jarraitzen dugu gure mailan. Umetan asko hasten dira igeriketan, baina gero laga egiten du jendeak eta oso gutxik jarraitzen dugu. Jendeak nahiago ditu futbola eta eskubaloia. Eta normala ere bada. Igeriketan disfrutatzeke teknika ondo menperatu beharrago dago aspergarri egingo ez bada, eta gertatzen da jende askok azkarregi lagatzen duela, gozatzea zer den probatu

aurretik. Jarraituko balute ikusiko lukete estilo ezberdin asko daudela eta disfrutatu daitekeela igerian ere.

Eskubaloian ere badiharduzu, Sanlon. Inoiz ez dizue esan bietako bat aukeratu beharko zenukeela?

Bai, eta beharbada aukeratu beharko nuke, lesioekin-eta estu ibiltzen naizelako batzuetan, baina ahal dudana bitartean bietan jarraitu nahi dut, oso gustura nabilelako. Bai eskubaloian eta baita igeriketan ere hankak eta besoak dira gehien behartzen direnak, eta eskubiko besoa mintzen zait neri gehien, baina momentuz moldatzen naiz.

Eibarko Urbat taldera joan zara orain. Ez zenuen Elgoibarren jarraitzeko aukerarik, ala?

Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan hasi

nintzen Elgoibarko taldearekin, baina orain DBHn nago, eta gure adinekoei federatzea eskatzen digutenez eta Elgoibarren ezin naitenez federatu, Eibarko taldearekin egin dut fitxa, Urbat taldearekin. Entrenatu, baina, Elgoibarren entrenatzen naiz. Hiru entrenatzaile izan ditut orain artekoan, eta orain Xeber Uribe ondarrutarrarekin ari naiz. Askok ikasi dut berarekin eta baita asko hobetu ere, bereziki teknika aldetik, eta eskerrak eman nahi dizkiot hemendik.

Zein estilotan aritzen zara erosoen?

Ondoen bizkar estiloko probetan ibiltzen naitzela esango nuke, eta gero Crawl modalitatean.

Kostatu zaigu zurekin hitzordua lotzea ere. Mutil okupatua zara gero!

Bai, eta hori igeriketari ez diodala beste askok beste ordu eskaintzen. Astean pare bat orduz entrenatzen naiz, eta txapelketako probaren bat daukadan asteetan hiru ordu eta erdi-edo. Egia da txapelketetan dabiltzan nire adinekoek askoz ordu gehiago eskaintzen dizkiotela. Batzuk astean sei egunez entrenatzen dira, egunean pare bat orduz, baina nik eskubaloian ere badihardut eta ezin dut. Igeriketan, behin teknika ikasitakoan, orduak sartzea da kontua. Dena den, igeriketako entrenamenduak iluntzean izaten ditut, berandu, eta aukera ematen dit bi kirolak eta eskolako lanak uztartzeko.

Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak jokatu berri dituzu. Zer nolako esperientzia izan da?

Gipuzkoakora egun osorako joan ginen. Han, norberak aukeratu behar zuen zein probatan lehiatu, eta nik, nire ezaugarriak dirrela-eta, 100 eta 200 metroko bizkar estiloko probak aukeratu nituen. Urtebete zaharrago zirenen kontra lehiatu nintzen, eta bietan bigarren sailkatu nintzen. Esperientzia oso polita izan zen. Proba aurretik lasai nengoen, baina nire txanda gerturatu ahala hasi nintzen urduritzen. Beti gertatzen zait hori, baina behin tranpolinetik salto egiten dudanean joaten zaizkit urduritasunak. Lagun asko egin nituen, eta uste dut hori dela onena. Gipuzkoakoan egin nuen denborei esker Euskadiko txapelketarako sailkatzea lortu nuen. Gasteizen jokatu genuen Euskadiko txapelketa eta han ere bigarren egin nuen, bai 100 metroko bizkar estiloan eta baita 200ekoan ere. Urbatetik hiru lagun joan ginen Gasteizera.

Badakit Gasteiztik liluratuta bueltatu zinela. Zer dela-eta?

Sekulako piszina jardun genuen igerian. Gure entrenatzaileak esan zigun Bartzelonako Olinpiar Jokoak izan zirenean Michael Phelps eta beste igerilari estatubatuar on asko ibili zirela han entrenatzen, eta horregatik bakarrik ere oso esperientzia polita izan zen. 50 metroko piszina, igeri egiteko bide ugari, harmaila izugarriak inguruan.... Gu, dena den, 25 metroko distantzian aritu ginen. Nire ordura arteko markak bi segundoan ondu nituen gainera, eta bai, oso pozik itzuli nintzen.

Idolorik baduzu?

Idolorik ez, baina zalantzarik gabe Michael

Phelps da onena. Hemen, eta gure adinekoetan, Unai Arruabarrena irundarra da onena. Estilo guztietan da ona, eta Espainiako Txapelketarako ere bera bakarrik sailkatu da hementik.

Piszinan ez ezik itsaso zabalean ere ondo moldatzen zarela erakutsi duzu.

Xeberrek [entrenatzailea] animatuta hasi nintzen, iaz. Ondarroako eta Getaria-Zarauzko trabesietarako eman nuen izena, eta gauza berria izan arren niretzat, oso gustura aritu nintzen, uste baino hobeto moldatu nintzelako. Ondarroakoan laugarren sailkatu nintzen nire adinekoen sailean, eta Getaria-Zarauzkoan hamazazpigarren. Badaukat aurten errepikatzeko asmoa. Nire marka ontzeko aukera badaukalada uste dut, eta aukera badut, iazko biak eta Debakoa ere egingo ditut.

Non aritzen zara gusturago igerian: itsasoan ala piszinan?

Itsasoan igeri egitea gustagarriagoa da, bare baldin badago behintzat. Piszinan atzera-aurrera ibiltzea aspergarria ere egiten da sarri.

Eskubaloian eta igeriketan ondo zabilzala ikusita ez al duzu pentsatu waterpolo probatzea?

Udako oporraldia aurretik beti egiten dugu waterpoloko saioen bat Elgoibarko igerilekuan eta gustatzen zait, egia esan. Baina oso gogorra da, oso nekagarria. Eskubaloian eta igeriketan ibilita, baliteke beste batzuk baino prestatuago egotea waterpoloan aritzeko. Beharbada probatuko dut.

Egiguzu denboraldiaren balorazio bat.

lazitik hona asko hobetu dudala esango nuke, eta hori hein handi batean, Xeberri esker izan da. 100 metroko bizkar estiloan, Espainiako marka 1:09an dago, eta hori ontzea oso-oso zaila dago. Ni 1:14 inguruan nabil. Distantzia luzeagoetan bost segundo ez da asko egia esan, baina 100 metroko esprintean bost segundo bajatzea izugarria da. Badaukat hobetzeko tarteala hala ere, eta saiatuko naiz, jakina. Eskubaloian, berriz, Sanloko infantilen taldean dihardut. Gure mailan onenatarikoak gara esango nuke. Urtebete zaharragoen kontra dihardugu aurten, eta hala ere, sailkapenaren erdialdean bukatuko dugu liga. Datorren denboraldian, baina, gu izango gara multzoko zaharrenak, eta berez besteen gainetik ibili beharko genuke.

m o t z



Danborradako entseguak ekainaren 30ean hasiko dira


Ekainaren 30ean hasiko dira santanetako helduen danborradarako entseguak. Astelehen eta eguaztenetan izango dira, 21:00etatik aurrera, ikastolan. 2, 7, 9,14,16 eta 21 egunetan egingo dira entseguak.

Zortzi bikotek eman dute izena binakako erraketa txapelketarako

Ekainaren 23an hasiko da Mendaron emakumezkoen erraketa txapelketa, eta aurten zortzi bikotek parte hartuko dute. Ligaxka eran jokatu da txapelketa, eta finala uztailaren 18an izango da. Umeen erakustaldi batekin hasiko da egun horretan jaialdia, 18:00etan, eta ondoren jokatu da finala.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan saioa

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek Bizipoza ikuskizuna eskainiko dute uztailaren 5ean, frontoian, eta sarrerak salgai daude dagoeneko, Morroskillo dendan. 19:00etan izango da saioa, eta sarrerak 7 eurotan jarri dituzte salgai.



MARI JOSE ZUBIAURRE

MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA

Orain dela 30 urte sortu zuen guraso talde batek Elgoibarko musika eskola, eta guraso talde horretako kide zen Mari Jose Zubiaurre. Hasiera zaila izan bazen ere, ilusioz ekin zioten Elgoibarko umeak musikara zaletzeko bideari, eta zeregin horretan, paper garrantzitsua bete du Mari Josek, baina erretiroa hartzeko ordua iritsi zaio. Ikasturte amaieran lagako du musika eskola.

Ainhoa Andotegi

“Ni banoa, baina musika eskola esku onetan geratzen da”

Erretiroa hartzekoa zauden une honetan, zein da bat-batean datorkizun sentimendua?

Jaso dudan babes guztia etortzen zait burura. Ingurukoak oso maitakor egon dira azkenaldian, eta guztiak erakutsi didate esker ona. Egia da ahal dudan ondoen egin dudala lan beti, inplikatu naizela eta neukan onena eman dudala, baina ez nuen espero trukean jaso dudan guztia jasotzea. Oso polita izan da.

Nola iritsi zinen musika eskolara?

Musika eskola beti sentitu izan dut gure proiektua. Guraso talde bat bildu ginen 1984an Centro Ubitarten, Felix Lodosok deituta. Bera musika munduan zebilen eta nonbaitetik jakin zuen bazegoela aukera Elgoibarren kontserbatorioa sortzeko. Guraso talde hartatik irten zen lehenengo zuzendaritza taldea: Manolo Santos, Felix Lodoso, Marivi Agirregomezkorta, Flori Añana, Maribel Elkorberezibar, Cecilia Urain, Jose Luisa Huergo eta ni. Bakoitzak ardura batzuk hartu genituen, eta denok borondatez egiten genuen lan. Nire lehenengo lana kontzertuak eta musika ekitaldiak antolatzea izan zen. Ez nekien ezer horri buruz, baina bati eta besteari galdetuz, moldatu nintzen. Esperientzia aberasgarria izan zen. Musika eskola handitu zen heinean hasi ginen kobratzen eta kontratuak egiten. Pertsona bat behar zen bulegoko lanetarako, eta ni libre samar nengoenez, lanean hasteko proposamena egin zidan zuzendaritzak. Aurrez ere bulego baten lanean ibilia nintenez, gusto handiz hartu nuen lan hura. Arratsaldean egiten nuen lan, eta ordaindu egiten zidaten. Irakasleek ere orduka egiten zuten lan hasieran, eta kontratuak egiten gero hasi ginen.

Nola abiatu zenuten kontserbatorioa sortzeko prozesua?

200 ikasle behar genituen kontserbatorioa martxan jartzeko, eta instrumentu batzuk derrigorrez irakatsi behar ziren. Eskoletan inkestak egiten hasi ginen jendeak musikarako zeukan interesa ezagutzeko. Garai hartan Musika Bandak bazeukan eskolatxo bat klaseak emateko eta ume batzuk joaten ziren hara instrumentuak ikastera, eta beste irakasle batzuek etxean ere ematen zituzten eskolak. Baina, gure ustez, herri bazegoen hutsune bat, eta hori betetzeko beharra ikusi genuen. Baliabide gutxiarekin, baina ilusio handiz egin genuen lan, eta 200 ikasle baino gehiago lortu genituen. 1984ko irailean hasi genuen ikasturtea.

Nolakoa izan zen hasiera hura?

Lan handia egin genuen urte hartan. Donostiako kontserbatoriora bigaia asko egin genituen informazio eta laguntza eske, baina baliabide gutxi genituen. *Papeleo* eta burokrasia guztia egin genuenean, Foru Al-

dundiak eman zizkigun diru-laguntza gutxi batzuk eta pare bat piano. Elgoibarko ikastetxeek, banketxeek edo bulegoek altzariak berritzen ziztuztenean, geuri ematen zizkiguten zaharrak. Eta guk dena hartzen genuen, jakina, dena behar genuelako. Gelak ere geuk garbitzen genituen hasieran! Ez geneukan dirurik. Ikasle bakoitzak bere kuota ordaintzen zuen, eta Jaurilaritzak eta Aldundiak ere ematen zuten diru apur bat, baina ez geneukan ezer soberan. Elgoibarko Udala hasieran apur bat eszeptiko agertu zen, eta ez zuten oso argi ikusi musika eskolaren beharra, baina ahal zuten guztian lagundu ziguten eta lokala ere laga ziguten. Aita Agirre eraikinean hasi ginen, eta merkatu plaza gainean ere bageneuzkan lokalak. Urtebetean interes handia piztu zuen herrian, eta urtetik urtera handitzen joan zen musika eskola. 1990ean oinarriko kontserbatorio izaera lortu genuen, eta 1991n erdi mailako kontserbatorio izatera pasatu ginen.

Zergatik aldatu zen kontserbatorio izateak musika eskola izatera?

1992an LOGSE hezkuntza legea jarri zuten indarrean, eta Jaurilaritzak proposatu zuen musika eskola sortzea. Horrek hainbat aldaketa ekarri zituen, besteak beste, titulazio ofizialak ezin genituela eman. Titulu ofizialak eskuratzeko Bilbo, Gasteiz edo Donostiako kontserbatorioetara joan behar da, eta aurrera egin nahi duenak Musikeren sartzeko aukera dauka gero; hori izango li-

tzateke musikaren unibertsitatea, nolabait esateko. Hortik aurrera, gure helburua musikarako zaletasuna sendotzea izan da, eta bandarako, abesbatzetarako edota otxoteak edo koruak osatzeko harrobia sortzea. Aldaketa ez genuen bat-batean egin, eta trantsizio urte batzuk pasatu genituen, titulazio ofizialak lortzeko ikasketak egiten ari ziren ikasleei irteera emateko. Erabaki horri esker inguruko herrietatik ikasle asko etorri zitzaizkigun. Nolabait esateko, musika eskolak izaera ludikoagoa dauka kontserbatorioak baino. Hala ere, musika ikasketak egin nahi dituzten ikasleak prestatzen ditugu, kontserbatoriorako bidea errazteko.

Gaur egun herriko eraikinik dotoreenetarikoa dauka musika eskolak. Zer izan zen hori zuentzat?

Zerua eskuekin ukitzea modukoa izan zen eraikin berri hori guretzat. Eusko Jaurilaritzatik hasi ziren esaten lokal zahar haietan ezin genuela jarraitu eta gutxieneko baldintza batzuk bete behar genituela, diru-laguntzak jasotzen jarraitu nahi bagenuen behintzat. Entseguetarako gela, liburutegia, auditorioa edukitzea eta beste hainbat baldintza bete behar zituen lokalak. Beldurtu egin ginen, diru-laguntzak oso garrantzi-

“Zerua eskuekin ukitzea modukoa izan zen gaurko eraikin hau lortzea”

tsuak zirelako guretzat, eta Udalarekin bilerak egiten hasi ginen. Alkate asko ezagutu ditut urte hauetan, eta denekin konpondu izan naiz oso ondo, baina garai hartan esaten zidaten ez zegoela horrelako erai-kin bat egiteko dirurik. Elgoibarren behar asko zeuden, eta denerako dirurik ez zegoen. Guretzako lehentasunezko kontua zen musika eskola, baina lehentasunezko kontu asko zeuden herrian. Azkenean proiektua onartu zuten, eta urtero diru kopuru bat jartzen hasi ziren obrak egiteko. Zortzi bat urtez luzatu ziren obrak, eta 2001eko irailaren 5ean estreinatu genuen. Guretzako izugarria izan zen. Musika eskola herrian sendotuta dago gaur egun. Aurten 548 ikasle izan ditugu, biztanleen %4 inguru gutxi gorabehera, eta gainerako herrietan %2-%3 inguruan dabilta. Gu oso pozik gaude musika eskolak daukan harre- rarekin, izan ere, ikasle asko eta adin guztietakoak etortzen zaizkigu.

Zein zerbitzu eskaintzen ditu musika eskolak?

Musika eta dantza eskola da gaur egun. 5 urteko umeekin hasten gara, eta haur eskola moduko bat da. Musika tailerrak eskaintzen zaizkie, eta musikarekin loturiko jolasak eta ekintzak egiten dituzte. 6 urterekin dantzan hasten dira, ordurako oinarritzko mugimenduak menderatzen dituztelako. 7 urterekin bigarren ziklo batean sartzen dira: euskal dantzak ikasteko, neskak eta mutilak banandu egiten dira, dantzak desberdinak direlako; eta musikari dagokionean, pentagramak, notak, figurak eta abarrak ikasten hasten dira, eta instrumentuen tailerra ere izaten dute. Talde txikietan bilduta, astean instrumentu bat probatzeko aukera eskaintzen zaie. 8 urterekin instrumentu bat jotzen ikasi nahi duenak hizkuntza musikala ere ikasi behar izaten du, eta horrek gutxieneko obligazio bat eskatzen du. Adin horretan dantza aukerakoa da, eta bakoitzak erabakiko du dena egin nahi duen edo diziplina bakarrean sakondu nahi duen. 8 urtetik aurrera taldean lan egiteari garrantzi handia ematen diogu, eta gutxieneko obligazio batzuk bete behar izaten dituzte. Azterketa batzuk egoten dira, baina ez dauka lehengo solfeoarekin zerikusirik. Ikasle bakoitzak bere erritmoan ikasten du.

Musika eskola Emudafe federakuntzaren barruan dago. Zer da hori?
1990ean musika eta dantza fundazioa sortu zuen Udalak. Herrian zeuden musika eta dantza taldeen arteko koordinazioan hutsune bat zegoen, eta nolabait hori antolatzeko sortu zuten Elgoibarko musika eta dantza fundazioa. Parrokiako abesbatza, txistulariak, dultzaineroak, Udal musika banda, Haritz dantza taldea eta musika eskola sartu ginen, eta gerora, Itxaropena abesbatza ere bai. Diru-laguntzak fundazioari ematen zizkieten, eta gero diru hori gure artean banatzen genuen. Diru-laguntzak bideratzeko beharrezkoa zen fundazioa. Gerora esan ziguten ezin genuela fundazio bezala jarraitu, eta Emudafe federakuntza sortu genuen, elkarte desberdinen elkarte bat, alegia. 2005ean sortu genuen Emudafe, Elgoibarko Musika eta Dantza Federakuntza. Itxaropena abesbatza desagertu egin zenez, ez dago federazio horretan, baina beste guztiak hor barruan gaude.

Txistularien alarde egunean omenaldia egin zizun Udalak, eta Trinitate-etako umeen danborradan musika eskolak. Zer sentitu zenuen?

Txistularien alarde eguneko sekulako sorpresa izan zen. Alfredo Etxeberria alkateak eman zidan oroigarria, Udalarekin izan dudana harremana eskertzeko, eta oso hunkigarria izan zen. Eta Trinitate-etako danbo-

rradan ere hunkitu egin nintzen. Normalean ni ibiltzen naiz danborrada antolatzen, eta aurten gauza desberdinak nabaritzen nituen antolakuntza horretan. Guapa-guapa joateko esan zidaten, eta pentsatu nuen oroigarriren bat emango zidatela, baina hori baino gehiago izan zen, eta umetxoak dantzan hasi zirenean izugarri hunkitu nintzen.

Heritar batzuk haserre agertu ziren umeen danborrada horretan musika eskolako ikasleek bakarrik hartzen dutelako parte.

Bai. Lehen, Udalak antolatzen zuen, eta orduan librea zen, baina *desmadre* hutsa izaten zen. Umeek izena ematen zuten, eta gero ez ziren azaltzen, edo alderantziz, eta hori ikusita, musika eskolak hartu zuen ekintza horren ardura. Jantziak, danborrak eta barrilak ez ditugu nahi beste, eta horregatik, ezinbestean mugatu behar dugu parte-hartzea. Ez daukagu ezer gainerako herritarren kontra, eta nahiko genuke denei ematea aukera, baina musika eskolako ume guztiei aukera emateko ere zailtasunak izaten ditugu askotan. Oihala erosita daukagu danbor-joleentzako beste hamar bat traje egiteko, baina aurten ere ezin izan dugu. Nagusien danborradan ere itxarote zerrenda dago.

30 urte beteko ditu aurten musika eskolak. Zer eskaini dio urte horietan Elgoibarko herriari?

Hasierako garaiak gogorak izan ziren Elgoibarren. Ikasle askok uzten zituzten ikasketak, eta orduak eta orduak pasatzen zituzten Maalako petrilean eserita, ezer egin gabe. Guk ere seme-alabak genituen, eta ez genuen nahi gure seme-alabak modu horretan ikusterik, eta gazte haiei irtenbidea eman nahi genien. Nik uste dut lortu genuela.

Zer eman dizu musika eskolak?

Dena eman dit. Belaunaldi desberdinak ezagutu ditut, eta ikasle bezala ezagutu nituen askoren seme-alabak joaten dira orain musika eskolara. Nire bizitza musika eskolaren bueltan antolatu dut urte askoan, eta ezin dut ulertu nire bizitza musika eskola-

rik gabe. Horrez gain lagun minak eman dizkit musika eskolak, eta pertsona bezala garatzen ere lagundu dit. Bete egin nau lan honek. une txarrak ere izan ditut, baina onak askoz gehiago izan dira.

Zure ordezkoa aukeratzeko prozesuak zeresan handia eman zuen. BARRENERA ere iritsi zitzaizkigun gutun batzuk, prozesua ez zela behar bezala egin esanez. Zer daukazu esateko?

Presio handia geneukan nire ordezkoa aukeratzeko. Jende asko dago langabezian, ondo prestatutako jendea, eta Elgoibarren denok elkar ezagutzen dugunez, batekin edo bestearekin gogoratzeko eskatzen ziguten. Hori ikusita, kanpoko enpresa bati eman genion aukeraketa egiteko ardura. Ehun lagunetik gora aurkeztu ziren posturako, eta hiru hautaturen izenak eman zizkiguten. Goi mailako ikasketak zituzten hirurek, elgoibartarrak ziren, euskara onekoak... Baldintza oso onak zituzten guztiak, eta hirurak ziren balekoak, baina banakako elkarrikizketen ostean egin zuten informean enpresa horrek baten aldeko apustua egin zuen eta geuk ere hura aukeratu genuen. Guk kontzientzia oso la-sai daukagu. Ni banoa, baina musika eskola esku onean geratzen da.

Hemendik aurrera, zein asmo dituzu?

Ez naiz urrutira joango. Erretiroa hartuko dut, baina hemen inguruan ibiliko naiz eta zerbaitetarako behar banaute laguntzeko prest egongo naiz beti. Niretzako denbora hartuko dut: ibiltzeko, irakurtzeko, bilobak eta ama zaintzeko... Seguru ez naizela aspertuko.

“Ezin dut nire bizitza ulertu musika eskolarik gabe”

Metal Gaua antolatu du Sinuose kultur elkarteak gaur gauerako

Maalako parkean izango da jaialdia, 23:00etan

Bigarren urtez jarraian Metal Gaua antolatu du Sinuosek, Elgoibarren. Gaur gauean izango da jaialdia, 23:00etatik aurrera, Maalako parkean. Bi talde arituko dira ohol-tzan: Estigia eta Darkness By Oath.

Kontzertu bikoitza

Estigia 1985ean sortu zuten Zarautzen, eta konta ezin beste kontzertu eskaini zituzten hamabi urtean, harik eta 1997. urtean banandu ziren arte. Hainbat maketa eta diska ere grabatu zituzten, eta orain, amaitzear dute diska berria. Antolatzaileek aurreratu dute taldea ezagutu zutenetako batzuei ezberdina suerta dakiekeela orain egiten duten musika, besteak beste, afina-zioa bera eta ahotsak ere aldatu zaizkielako.

Darkness By Oath 2002. urtean sortu zuten. Detah Metal melodikoa egiten dute, eta At The Gates, Dark Tranquility eta antzeko beste hainbat talderen eragina izan du. 2004. urtean demo bat kaleratu zuten, eta lau diska kaleratu zituzten gerora: *Confidential World of Lies* (2005), *Fear Yourself* (2009), *Near Death Experience* (2012) eta *Seeds of Desolution* (2014).

Aurten Altzolan ez dituzte San Joan jaiak ospatuko

San Joan bezperan, usadioari jarraituz, San Joan suak piztuko dituzte Elgoibarren eta Mendaron, baina aurten Altzolan ez dituzte jaiak ospatuko. Udaleko Kultura Sailak jakinarazi duenez, auzotar talde bat joan zitzaizen jaiak antolatzeko betebeharrei buruz galdezka, baina momentuz inork ez omen du jakinarazi jaiak antolatuko dituztenik.

Elgoibarren, IMHrako bidean egokituko dute aurten suak pizteko lekua, IMHko bidegurutzetik gertu. Dena dela, Errotaberri zubi inguru ere suak pizteko prestatuko dutela jakinarazi du Udaltzaingoak. Mendaron, bestalde, In Leikek antolatu ditu suaren bueltako ekitaldiak. 19:00etan jolasak egingo dituzte frontoian, 20:30ean ogitartekoak banatuko dituzte eta 21:30ean sua piztuko dute plazan.

Txokoen eskaintza berezia antolatu du Atxutxiamaiak uztaileko eta irailerako

Gurasoek egindako eskaerak aintzat hartuta, txokoen eskaintza berezia antolatu du Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiak aisialdi taldeak uztaileko eta irailerako. Uztailearen azkeneko egunetako eta irailean ikasturtea hasi aurreko egunetako hutsunea betetzera dator udaleku irekien eskaintza berri hau. Uztailean, 28tik 30era iraungo du txokoak, eta matrikulak 24 euro balioko ditu (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat 22 euro). Irailean, berriz, 1etik 5era elkartuko dira, eta matrikula 40 eurokoa izango da (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat 36 eurokoa). Batean zein bestean izena emateko azken eguna uztailearen 4a izango da, eta ordainketa egiteko bi kontu korrante zenbaki jarri dituzte: 2095 536 58 170736292 (Kutxabank) eta 3035 007 23 0070065514 (Laboral Kutxa). Ordaintzean haurren izen-abizenak zehaztea eskatu dute.

Bakarkako lana grabatzen dihardu Jon Gurrutxaga musikari elgoibartarrak

Badira hamabost bat egun Jon Gurrutxaga musikari elgoibartarrak bakarkako lana grabatzeari ekin zio-la. Lagunekin batera hasi du bidea, sare sozialetan berak aitortu duen bezala. Grabazioaren nondik norakoak MusikaZuzenean web atarian duen blogean eta bere facebookeko perfillean ere jarrai daitezke.



'Machomaris' antzezlana Elgoibarren, gaur zortzi

Gay, lesbiana eta transexualen harrotasun eguna da ekainaren 28a, eta horren harira, Markus eta Juanmanoloren *Machomaris* antzezlana ikusteko aukera izango da Elgoibarren, gaur zortzi, ekainaren 27an. Kode matxistak hautsi nahi dituzten gizonetzkoen zuzendutako antzezlana da, gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde lan egin nahi dutenei zuzendutakoa. Kultur Etxeko sotoan izango da antzezlana, 19:30ean.



Kilometro bertikalen munduko txapelketan izateko gonbidapena jaso du azken orduan Iñigo Larizek

Maite Maiora ere Chamonixen izango da, mendiko maratoien munduko txapelketan

Chamonixen (Frantzia) jokatu den mendiko lasterketen munduko txapelketan izango dira Maite Maiora eta Iñigo Lariz datorren astean. Maiorarena gauza jakina zen hein batean, Espainiako Selektzioaren hautatuen zerrendan sartu zutelako, baina Iñigo Larizek eman du albistea. Espainiako Kopako liderra izan arren, Espainiako selektzioko arduradunek ez zuten aukeratu zerrendan sartu, baina azken orduan La Sportiva taldearen gonbidapena jaso du, eta Chamonixen izango da, "onena emateko". Gaur zortzi, ekainaren 27an, jokatu du proba Larizek, kilometro bertikalen munduko txapelketa, eta domekan, ekainaren 29an, lehiatuko da Maite Maiora, mendiko maratoien munduko txapelketan. Sasoi onean daudela erakutsi dute biek ala biek, eta aitortu dute ilusioz daudela datorren asterako. Larizen kasua berezia da, inondik inora, eta oihartzuna izan du sare sozialetan ere. Espainiako Kopako liderra izanda, selektzioko hautatzaileak deitu ez izana "ulergaitza" egin zaiola esan du Larizek berak ere. Arantza hori badu barruan, eta duen onena ematera eta "inoiz baino sasoi hobean" dagoela erakustera joango dela ziurtatu du, "ahalik eta denbora onena egitera".



Morkaikoren izenean joandakoen artetik Gotzon Zulaika mendararra gailendu da Hiru Haundietan

Zapatuan jokatu zen Hiru Haundiak klasikoa, distantzia luzeko lasterketen aitzindaria gurean [1987an jokatu zen aurreneko]. 1.400 partehartzailek zuten izena emanda, eta tartean hainbat elgoibartar eta mendarar bat. 100 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten partehartzaileek, eta ia 10.000 metroko desnibel metatua gainditu, tartean Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko hiru mendi mitikoenak zeharkatuta: Gorbeia, Anboto eta Aizkorri. Gizonezkoetan, lidekon lan egiten duen Javi Dominguez gasteiztarrak irabazi zuen, eta emakumezkoetan, Silvia Triguerosak.

Morkaikoren izenean joandakoen artetik, berriz, Gotzon Zulaika mendararra izan zen helmugaratzen lehenengoa, 13:44:32ko denborarekin. Saillakapen nagusian, 76. egin zuen. Argazki gehiago: www.elgoibARRREN.net.



Jon Peli Uriguen, Josu Mendikute, Gurutz Aizpurua eta Edu Uranga elgoibartarrak.



Gotzon Zulaika mendararra helmugan, Luken iloba besoetan hartuta.

Proba bukatu zutenak

Gotzon Zulaika	13:44:32
Gorka De La Horra	15:07:07
Jose Luis Revenga	16:20:44
Josu Idiakez	17:01:23
Esteban Izagirre	17:46:20
Patxi Garrido	17:46:20
Lander Azpiazu	18:06:58
Joseba Elustondo	18:37:08
Ainhoa Lendinez	18:37:08
Tomas Arrieta	19:26:15
Tomas Peña	19:26:16
Fernando Loiola	19:29:12
Mikel Arosa	20:01:19
Modesto Cid	20:25:47
Elias Fernandez	20:25:55
Arantza Beristain	21:12:37
Ekaitz Baskaran	21:12:39
Cesar Fidalgo	21:36:45
Jon Peli Uriguen	21:39:30
Josu Mendikute	21:39:30
Gurutz Aizpurua	21:39:31
Eduardo Uranga	21:39:33
Edu Uribe	22:18:44
Pedro Alvarez De Pablo	22:36:59

Gaur zortzi, ekainaren 27an, jokatu da Nahaste Borraste proba herrikoia

Izenemateak plazan egin beharko dira

Gaur zortzi jokatu da Nahaste Borraste proba, 19:00etatik aurrera. Kimetz elkarteak antolatzen du urtero proba herrikoi hau, eta 16 urtez gorako edonork parte hartu dezake. Parte hartzaileek hiru probatan lehiatu behar izaten dute. Hasteko, zazpi kilometro inguru egin behar izaten dituzte bizikletan, eta ondoren, Kalegoen plazan 25 kiloko zakua bizkarrean hartu eta 400 metro egin behar izaten dituzte korrika, San Bartolome eta Errosario kaleetan barrena. Azkenik, 1.500 metroko ibilbidea osatu behar izaten dute antxitxika. Aurreko urteetan legez, izenemateak plazan bertan egin beharko dira aurten ere, lasterketa hasi aurretxoan.

laz, 50 lagunek hartu zuten parte, eta Jose Antonio Ruiz Del Rey gailendu zen, 18:26ko denborarekin. Jose Antonio Ruiz Del Reyk 16 urte zituenetik parte hartzen du pro-



ba honetan, eta 2007an ere berak irabazi zuen. Emakumezkoetan, Ainhoa Lendinezek egin zuen iaz denborarik onena (20:09). Errekorra, nola nahi ere, Iñigo Larizek dauka oraingoz: 18:01.

Lagunak pilota eskolako harrobia



30 umek parte hartu dute aurten Lagunak txapelketan. Joan zen barixakuan jokatu zituzten finalak Kalegoen plazan, eta txapelketa bukatu osteko argazkia duzue hau. Bergua eta Izagirre lehiatu ziren benjamin mailako finalean, eta Bergua nagusitu zen, 18-11ko emaitzarekin. Alebinetan, berriz, Danel Zubizarretak 18 eta 11ko emaitzarekin irabazi zion Sanchezi.

June Loidi eskubaloi jokalaria, Espainiako selekziorako hautatu dute

June Loidi Sanlo eskubaloi klubeko jokalaria Espainiako selekzioak Sorian egingo duen kontzentrazioarako deitu dute. San Roke kafeategia infantilen taldean dihardu gaur egun Loidik jokatzen, eta uztailaren 7tik 12ra Espainiako infantilen selekziokoekin entrenatuko da, Sorian.



Sardiniako nazioarteko txapelketan hirugarren egin du Egoitz Mora judokak

Cagliariko Quattro Mori Txapelketan (Sardinia) parte hartu zuen joan zen astean Egoitz Mora judoka elgoibartarrak, Usurbilgo taldearekin, eta podiumera igotzea lortu zuten. Bost lagun joan ziren Usurbildik Sardinia, eta hirugarren sailkatu ziren. Egoitz Morak 90 kiloz azpikoetan parte hartu zuen.



LAN ESKAINTZAK

- Sukaldari laguntzailea behar da aste-buruetarako. CVa Gautxo tabernan utzi behar da.
 - Gurasoak lanean gauden bitartean gure umeak zainduko dituen pertsona baten bila gabilza Mendaron.
- ☎ 688 671 786

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 622 037 598
 - Pisua hartuko nuke alokairuan, ahal dela, hiru logelatakoa. Jabearekin harreman zuzena izatea eskertuko nuke.
- ☎ 671 289 584
- Pisua alokatzen dut Donostian, Gros auzoan. Ikalseentzako egokia, unibertsitateko eskolak irauten duten garaian. Hiru logelakoa.
- ☎ 639 775 253 (Juan Andres)
- Emakume batek etxea hartuko luke alokairuan, ahal bada hiru logelatakoa.
- ☎ 603 237 932

GARAJEAK

- Garaje itxia salgai Lekuederren. 3. solairuan. Jausoron garajea salgai edo alokairuan.
- ☎ 652 727 631

LOKALAK

- Lokal komertziala alokatzen dut. Biltegi edo gazteentzako lokal moduan erabiltzeko egokia. Bi lokal batuta, 120m2 eta bi komun.
- ☎ 649 446 716 (Loli)

PARTIKULARRAK

- Uztaileko goizetan klase partikularrak emango nituzke, Mendaron.
- ☎ 666 614 519 (Oihana)

BESTELAKOAK

- Katakumeak oparitzen ditut.
- ☎ 667 625 705



San Fermelo, 37 - Tel: 943 74 09 56 - ELGOIBAR

Obretan ari garelako merkealdia aurreratu dugu.

%20_{ko} deskontuak



Bikinietan aukera paregabea



P. M. Urruzuno kalea, 6 beheka - Elgoibar
 ☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net




Etxebizitzaren salerosketaren eskriturak sinatzean notarioaren papera zein den jakin nahiko nuke. Jakin nahiko nuke, era berean, notarioa han egotea nahikoa berme den etxe-jabeak etxebizitza horrek bizigarritasun baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzeko behar ditudan papere guztiak eskura eman diezazkidan.

Ondasun higiezin bat saldu eta eskriturak notario aurrean sinatzen direnean hainbat gauza ziurtatzen dira: Batetik, jabetza tituluak egiaztatzen dira, eta ziurtatzen da saltzaileak baldintza legal guztiak betetzen dituela jabetza hori saltzeko. Saltzailea eta eroslearen egoera ekonomikoa ere aztertzen da ikusteko etxe hori saldu eta erosteko gai diren. Etxe hori zeini dagokion identifikatu eta egiaztatzen da, nahasteak saihesteko eta salerosketa legeak agindu bezala egiten dela ziurtatzeko. Etxebizitzaren erregistro-egoera egiaztatzen da, kargarik duen ikusteko, horretarako behar den informazio guztia eta lege aholkularitza osoa eskainiz. Etxe saltzaileak Etxebizitzaren Ziurtagiria eskatu behar dio Etxaldean Administrazioari notaritzan aurkezteko, azken batean etxebizitza horrek bestelako kargarik duen egiaztatu behar baitu notarioak. Azkenik, notarioak Jabetza-Erregistroan aurkeztu behar du eskritura.

GOMENDIOA: Notarioak ez dauka beste kontu batzuk kontrolatu beharrik: etxebizitzak akatsik edo kalterik duen edo etxebizitza horrek ura, argia eta bestelakoak ordainduta dauzkan. Horiek etxea erostera doanak egiaztatu behar ditu.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Bat, bi, hiru, lau...eta gaur, 5 urte **Markelek**. Zorionak Pikupeko alprojari, Elgoibarko sorginen partez. Biharko bazkari goxoa prestatu




• Zorionak, **Malen!** Ederto pasa genuen atzo zure 7. urtebetetzean. Patxo bat denon partez, eta marrubizkoa, Junen partez.



• Zorionak, **Malen**, ostegunean 8 urte! Zein azkar pasa diren, printzesa. Muxu handi bat denon partez, eta bereziki Garaziren partez.



• Zorionak, **Irene**, 8 urte beteko dituzulako ekainaren 26an. Osaba-izeben partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Paula**, dagoeneko 7 urte! Muxu handi-handi bat, etxe-koen, eta bereziki, Sararen partez.



• Zorionak, **Danel**, zure zazpigarren urtebetetzean, familiakoen partez.



• Zorionak, **Aimar**, ekainaren 15ean 3 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Nora!** Gure printzesatxoak 2 urte larunbatean! Patxo handi bat, etxe-koen partez.



• Zorionak, **Aimar** eta **Malen**, datorren asteartean 6 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bat, ama eta aitaren partez.



• Zorionak, **bikote**, zuen urtebetetze egunetan. Muxu handi bat, denon partez.



• Zorionak, **Maria eta Karla**, ekainean 5 eta 2 urtetxo zuentzat... eta guretzat, zoriontasuna! Patxo bana, maiteak.



• Zorionak, **printzesa**, atzo 4 urte bete zenituelako. Muxu asko guraso, aiton-amona, osaba-izeko, eta bereziki, Jonen partez.

Ekainaren 23tik aurrera gaztelekua astelehenetik ostiralera egongo da **zabalik**. Ekintza bereziak antolatu ditugu, eta www.elgoibar.org webgunean ikus ditzakezu.

Datorren astean ludoteka **itxita** egongo da.

Eskaintza bereziak sukaldeetan, erakusketa aldaketagatik

Luis F. Beristain
xey FORMA
 berrikuntza ofiziala

ETXEKIT
 12 urteko bermea
 Amillaga zlg - Elgoibar - Tel. 943 74 43 47

Argazkiko sukaldeak **2000€** balio du! *

* Prezioan ez dira etxetresna elektrikoak sartzen

20 barixakua

Aisiladia

17:30 Kiribil

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.

Antzerkia

19:00 Etxe kaleratzea

Prekarietateari Stop taldeak etxe kaleratze bat antzeztuko du, San Frantzisko kalean, LABen egoitzan.

Bideo forum-a

21:30 'Nacidas para morir'

Haizeak antolatuta, Kultur Etxean. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

Musika

23:00 Metal gaua

Sinuosek antolatuta, metal estiloko musika entzuteko aukera izango da Maalako parkean.

22 domeka

Musika

10:00 Udal Musika Bandaren kalejira Kalegoen plazatik.

Kontzertua

10:00 Udal Musika Bandaren kontzertua

1. *Septimino* (Beethoven)
2. *Estampas andaluzas* (A. Piquero)
3. *Mambo nº5* (Perez Prado)
4. *Cascanueces* (Tschaikowsky)
5. *Cugat's cocktails* (X. Cugat)

25 eguztena

Politika

19:15 Sorturen herri batzarra Europako hauteskunderen balorazioa eta aurrera begirako erronkak landuko dituzte. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

26 eguztena

Batzar orokorra

19:00 CD Elgoibarren urteko batzarra

Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 -24:00	24:00 - 09:00
20 Fernandez 21 Zabaleta Goizez: Etxeb. 22 Zabaleta 23 Garitaonandia 24 Barrenetxea 25 Ibañez 26 Zabaleta 27 Etxeberria	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384



ESKERTZA

FELIPE ATRIO DAQUINTA

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*



2014ko ekainaren 17an hil zen,
44 urte zituela.

Koadrilakoak




(B)

**Diru (B)eltza,
gizarte-zerbitzu
(B)eltzak**

**“A” gizartea
lortzeko**

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 **ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA**

www.ekonomiagardena.net



Gipuzkoa
BERRIA

TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Txarangaren kalejira amaitu ondoren, 17:00etan, Sigmako aparkalekuan

MENUA:

- Patatak errioxar erara
- Oilasko-izter errea osagarriekin
- Bizkotxo bustia esne-gainarekin

20 €

18 €

Elgoibarko
Izarrako
bazkideek



Txikixan haundi

Izenematea **BARREN astekarian** edo Internet bidez egin behar da
(www.elgoiBARREN.net)

Izena emateko azken eguna: uztailaren 18a.



ELGOIBARKO IZARRA
Buzkaltzaileen topagunea